

KAZETARITZAKO

IV. EUROBASK

Saria

2011

DEIALDIA EGITEN DUENA:
EUROBASK
Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua

PARTE-HARTZAILEAK:
Kazetariak, idazleak, ikertzaileak...

HORNIKUNTZA:
3000 €, Europar Batasunari buruzko gai batez egindako kazetaritza lan hoberenarentzat. Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen edo egiten den hedabide batean 2011. urtean zabaldu den lana izan behar du.

LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:
2012ko urtarrilaren 31a, 12:00etan.

ARGIBIDEAK:

EUROBASK
Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
Consejo Vasco del Movimiento Europeo

EUROBASK
Prado kalea, 8 - 1. eskuina
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telefonoa: 945 12 35 38
eurobask@eurobask.org
www.eurobask.org

DEIALDIA

Hedabideek Europa eraikitzean rol garrantzitsua jokatu behar dutela jakitun, EUROBASKe 2008an erabaki zuen KAZETARITZAKO EUROBASK SARIA sortzea. Sari horrek kazetaritza lanak sarituko ditu: hain zuzen ere, Europako egungo gertaeren berri zabalitzen, europar nortasuna sustatzen eta Europa eraikitzeko proiektua ezagutarazten hobekien laguntzen duten kazetaritza lanak.

Deialdia urtero egiten da.

HELBURUAK

- Euskadiri bereziki eragiten dioten Europako egungo gertaeretako alderdiei buruzko albiste eta informazioak gehitzen laguntzea.
- Kazetariak animatzea, Europar Batasunean gertatzen diren albiste eta ekimenei arreta handiagoa eskain diezaieten. Hartara, europar nortasuna indartuko da gure gizartean.
- Europar Batasunaren etorkizunaren gaineko eztabaida bizirik mantentzea, kontinentean gertatzekoak diren aldakuntza handietarako prest izateko.
- EUROBASKen nortasunaren, xedeen eta jardueren berri zabalitzea, eta dituen helburuak lortze aldera hobekien laguntzen duten kazetaritza lanak saritzea.

OINARRIAK

1. PARTE-HARTZAILEAK

2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen edo egiten den hedabide batean zabaldu diren kazetaritza lanak aurkez daitezke sari honetara. Gaia, Europa eraikitzeari buruzkoa izan beharko da.

Hautagaitzak aurkez ditzakete gizabanakoek, kazetari elkarteek, albiste agentziek, hedabideek, unibertsitateek, gobernuz kanpoko erakundeek eta bestelako erakundeek. Hala ere, irabazlea lanaren egilea izango da, berdin dio nork aurkeztu duen hautagaitzat.

Lehiakideek hiru kategorietan parte hartu ahal izango dute. Kategoria bakoitzean, lan bat besterik ezin du aurkeztu lehiakide bakoitzak.

Etorkizunean egiten diren deialdietan, ezin izango dute parte hartu Kazetaritzako EUROBASK Saria lortu dutenek, ez eta EUROBASKe Zuzendaritza Batzordeko kideek eta epaimahaiko kideek ere.

2. LANAK

Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen edo egiten den hedabide batean 2011. urtean zabaldu den lanik hoberenari emango zaio saria, modalitate hauetan:

- Prentsa idatzia, *online* argitalpenak barne.
- Irratia.
- Telebista.

Eta ondorengo kategoria hauetan:

- Albisteak.
- Erreportajea.
- Europar gaien atala.
- Kronika.
- Iritzi artikulua.
- Elkarrizketa.
- Karikatura / Umorea.

Saria lan honi ematea proposatuko du epaimahaiak: kalitaterik handiena duenari; planteamendu originalagatik nabarmentzen direnei; edo beren arloko ikerketa eremuan berrikuntza dakarrenari.

Lanek euskaraz edo gaztelaniaz eginak izan beharko dute.

Sarira aurkeztutako lanekin batera aurkeztu beharrekoak:

- Oinarri hauetan ageri den partaidetza fitxa, behar bezala beteta.
- Sarira aurkezten den lanaren egilearen curriculum vitae.
- Prentsa idatziaren modalitatean: argitaratu zen hedabidearen ale original bat. Online argitalpena baldin bada, fitxategira daraman zuzeneko esteka edo argitalpen osoaren PDF fitxategia dakarren CDa, bai eta argitalpen dataren ziurtagiria ere.
- Irratiaren modalitatean: Saio osoaren CDa edota DVDa Fitxategiak mp3 nahiz realplayer formatuetan aurkeztu beharko dira. Datu hauek adierazi behar dira: emanaldiaren eguna; saioaren eta irrati katearen izena; eta, ahal bada, saioaren gidoi idatzia.
- Telebista modalitatean: Saio osoaren CDa edota DVDa, Fitxategiak AVI, MPEG nahiz WMV formatuetan aurkeztu beharko dira. Datu hauek adierazi behar dira: emanaldiaren eguna (egun hori izan zela dioen ziurtagiri eta guzti); saioaren eta telebista katearen izena; eta, ahal bada, saioaren gidoi idatzia.

Hautagaitza talde lan batena baldin bada, harremanetarako pertsona baten izena jarri behar da izena emateko fitxan. Pertsona hori izango da taldearen ordezkari, lana hori saritzen bada.

Lanak EUROBASKera bidali behar dira, posta ziurtatuz. Lanak ez dizkiegu egileei atzera emango, aurkeztean berariaz eskatu ezik.

Ezingo da beste lehiaketa batzuetan saritutako kazetaritza lanik aurkeztu.

3. HORNIKUNTZA EKONOMIKOA ETA ARGITARATZEA

Sari honen hornikuntza 3.000 € dira, Europar Batasunari buruzko gai batez egindako kazetaritza lan hoberenarentzat. Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen edo egiten den hedabide batean zabaldu den lana izan behar du.

Kopuru horri, indarrean diren zerga arauen arabera dagozkien atxikipenak egingo zaizkio.

Lan saritua eskuragarri izango da EUROBASKen webgunean.

Epaimahaiak saria emateko erabakia atzera bota dezake, gero egiaztatzen bada ez zituela betetzen oinarrietan jasotako baldintzak, edo kopiatutako nahiz plagiatutako lana dela.

4. AURKEZTEKO EPEA

Deialdian sartzeko lanak aurkezteko epea 2012ko urtarrilaren 31an bukatuko da, 12:00etan.

5. AURKEZTEKO TOKIA

Lanak EUROBASKen egoitzan aurkeztu beharko dira, edo hara bidali posta ziurtatuz:

Prado kalea, 8 - 1. eskuina
01005 VITORIA/GASTEIZ

6. EPAIMAHAIA ETA EBAZPENA

KAZETARITZAKO IV. EUROBASK Sariko epaimahaiak kide hauek izango ditu:

- EUROBASKeo presidentea.
- EUROBASKeo idazkari nagusia.
- EUROBASKeo zuzendaritza batzordeko bi kide.
- EUROBASKeo Biltzarreko kide bat.
- Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat.
- Unibertsitateko irakasle bat, Komunikazio Zientzi-etako fakultate batekoa.
- Kazetari elkarte baten ordezkari bat.
- Eusko Legebiltzarraren ordezkari bat.

Epaimahaiak saria emateari buruz hartutako edozein erabaki, bertaratutako kideen gehiengoa horren alde agertuta hartu behar da. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuaren kalitate botoak erabakiko du. EUROBASKeo lehendakaria izango da epaimahaiburu. Deialdia hutsik utz daiteke.

Epaimahaiaren ebazpena ezagutaraztea eta sari banaketa, 2012ko maiatzean egingo dira.

7. USTIAPEN ESKUBIDEAK

Saritutako lanaren hedapen eskubideak, dohainik eta eskusibotasunik gabe lagako zaizkio EUROBASKi. Saridunek, hori horrela izan dadin, dokumentu egokia eman beharko dute, beharrezko denean. Hartara, publikoki jasota geratuko da oinarriotan adierazi bezala laga direla jabetza intelektualeko eskubideak.

Beti ere, EUROBASKe egindako zabalkundean, eskuratutako saria honela adierazi beharko da argitalpenean: “KAZETARITZAKO IV. EUROBASK SARIA”.

Epaimahaiak webgunean zabalkundea emateko hautatzen dituen lanei gonbita egingo zaie, dokumentu egokiaren bidez eta publikoki horrela jasota gera dadin, eskubidea EUROBASKi laga diezaioten. Horrek ez du esan nahi izango jabetza intelektualeko eskubideak laga direnik.

8. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdi honetara lan bat aurkeztuz gero, horrek esan nahi du doakionak erabat onartzen dituela deialdi honetako oinarrietan ezarritako baldintzak.

KAZETARITZAKO IV. EUROBASK SARIA INSKRIBATZEKO FITXA

I. PARTE-HARTZAILEAREN DATUAK:

Abizenak:.....
Izena:.....
Parte hartzeko aukeratu duen kategoria:.....
Argitaratu zuen hedabidea:.....
Argitaratze data:.....
Helbide postala:.....
Udalerrria:..... Probintzia:.....
Posta Kodea:..... Telefonoa:.....
Helbide elektronikoa:.....

II. AURKEZTEN DEN LANAREN DATUAK:

Izenburua:.....

III. ESKATZEN DUT:

Onar nazazuela KAZETARITZAKO IV. EUROBASK Sarirako. Horretarako, deialdiko oinarrietan eskatzen den guztia bidaltzen dut honekin batera, eta osorik onartzen ditut oinarri horiek.

Izenpetua:

.....-(e)n, 20 __ _ (e)ko ren (e)an